


STEEILAS

Irakaskuntza pribatua



Lege-gordailua: BI-2729/0

2010eko martxoa

44. zenbakia

Hiru eleneko hezkuntza markoa



Klaustroa




Eskola-garraioa



Eskola- kirola

Ingelesa baino zerbait gehiago beharko dugu ba, ezta?



- Hezkuntza Saila berria, aldarrikapen zaharrak
- Zerbitzu publikoak hobetu ditzagun: ez gastu militarreei!
- Barakaldoko La Inmaculada ikastetxea • 2010 arrazoi Martxa jarraitzeko
- Ion Mikel Basaberen oroimenean • Jubilazioa ikutu ere ez!
- Lan Osasuna: mutuak eta bajak
- **BERRIAK**

ARABA: Eulogio Serdan, 5

BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)

GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)

NAFARROA: Descalzos, 72 (Ionja)

01012 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ 944 10 02 98

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02

☎ 944 10 13 60

☎ 943 45 36 27

☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org

bizkaia@stee-eilas.org

gipuzkoa@stee-eilas.org

nafarroa@stee-eilas.org

Geure gaiak dira!

Irakaskuntza Pribatua

Hezkuntza Saila berria, aldarrikapen zaharrak	2
Zerbitzu publikoak hobetu: ez gastu militarreei!	3
Barakaldoko La Inmaculada ikastetxea	4
2010 arrazoi Mundu Martxa jarraitzeko	5
Ion Mikel Basaberen oroimen	6
Jubilazioa ukitu ere ez!	6
Lan Osasuna: mutuak eta gaixotesuneko bajak	7
BERRIAK	8

Itunpeko Irakaskuntza Hezkuntza Sail berria, aldarrikapen zaharrak

Joan den martxoaren 1ean bete zen "aldaketaren gobernu" Lakuara heldu zen lehen urtemuga. Isabel Celáa Hezkuntza Sailburu berriak hauteskunderen ondoren PP alderdiarekin sinatutako hitzarmenaren jarraipen irmoa egin du, hartutako erabakiekin haserrea eta zarata sortuz. Erabaki guztiak *keinuen* politika barruan daude kokaturik. Aurrean ikusitako pelikula bat dirudi hau non azken kapituluak 2010. urterako aurrekontu murriztaileak aprobatzea, Iraleren moldaketa gauzatzea (eskatzen zenaren kontrako norabidean) eta zalantzak sorrarazten duen hiru eleko hezkuntza marko berria martxan jartzea, indarrean dagoen ereduaren sistema zuzengabea gutxienez hiru urtez luzatuz.

Batzuk harrিতa omen daude itunpeko irakaskuntzako langileentzat Iraleko ordezkapenak ordaintzeko diruaren %30eko murrizketarekin. Ez zuten ezer esan, berriz, Eusko Jaurilaritzak 2010. urterako aurrekontuak onartu zituenean. Eskueta lehertu zaie bere kide ohiek sortutako egoera, ezin dezakegulako ahaztu Hezkuntza Sailean aritzen direla CCOOeko kide asko eta asko. Hori dela eta arrazoi nahiko egon badira ere ikasturte honetan ez dira asko izan CCOOek ateratako salaketa orriak. Halere, zaila da igo egitea arropa busti gabe: Ez dute ezer esango pribatuko finantziarioaren inguruan Hezkuntza Sailak jaramonik egiten dionean aurreko Sailak sinatutakoari? Kalera aterako dira Hezkuntza Sailean kontra Hezkuntza Laguntzako espezialisten lanpostuak galtzen direnean? Ikusiko al dugu Lakuan mahai tripartitoaren aldeko elkarteratzerik?

Ezinbestekoa da Hezkuntza Sail berriak sektoreko arazoez hitzegiteko prest egotea eta patronalez gain beste eragileak elkarriketakidetzat onartzea. Berriro diogu: patronalek ez gintuzten ordezkatu aurreko Hezkuntza Sailekin hitzegin zutenean eta ez dugu nahi oraingoan egoera errepikatzea. Homologazioa nahi genuen eta homologaziorako urratsak eman ditzaten exijituko diegu hauei ere. Irakasleentzat eta ez irakasleentzat eta ordainketa delegatuaren formula zabalduz.

Hitz hauek idazteko orduan Giza Ekimenezko Hitzarmeneko mahaia ez dute konbokatu horretarako ordezkari gisa dutenak: ELA eta kristau Eskolak. Horren ondorioz berehala izango gara hirugarren lauhilabetean mugimendurik gabe. Geroago etorriko dira presa, transizio urtearena, krisia... eta Hitzarmen grisa, Eusko Jaurilaritzak ateratako dekretu batekin antza handia duena: hau dagoena da eta kito. Ezaguna egiten al zaizue abesti hori? Ulertzen dugu patronalek negoziatzeko inolako presarik ez izatea, ez baitute gauza handirik eskaintzeko asmorik. Zein da gehiengoa duen sindikatuaren jarrerarako azalpena?

ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETU: GASTU MILITARRIK EZ

ure zerbitzu publikoen egoera prekarioaz kezkatu eta gastu militarrei zuzendutako diru partida itzelak ikusirik, urtarilaren 20an, hau salatzeko elkarretaratzea egin genuen Eusko Jaurlaritzaren aurrean ESK eta Kakitzat elkarteekin batera.

E.A.E.-n kalitatezko zerbitzu publikoak (hezkuntza, osasuna, menpekotasuna duten pertsonen arreta, gizarte laguntzak) garatzeko baliabideen falta nabaria da. Bi adibide:

- Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundeko (OCDE) 30 Estutuen artean hezkuntzako gastua Barne Produktu Gordinaren % 5'9a izaten da batzaz beste, eta hemen %4ra soilik heltzen da.

- E.A.E-n osasunerako gastu publikoa BPGaren % 5'2a da eta OCDEn % 6'5a.

Honek euskal biztanleriaren oinarritzko beharrak bete gabe uztea suposatzen du. Honela, osasun zerbitzuetan pertsonalaren kopurua defizitariotzat jo daiteke, eta gure ikastetxeetan dauden profesionalen lantaldea oso eskasa eta eznahikoa da. Zer esanik ez profesionalen kontratazioan ematen den behin behinekotasunaz; edo ospitaletako larrialdien saturazioaz; edo ikastetxeetako jantokietan ematen den egoeraz; edo bizitza laborala eta familiarra uztartzeko ezintasuna administrazio publikotik 0-3 urte bitarteko umeen eskolaratzea ez bermatzeagatik.

Eusko Jaurlaritzatik hezkuntza eta osasun arloei behar bezalako arreta ez diela ematen nabaria da. Agian beste lehentasunak dituelako, osasun eta irakaskuntza pribatuei dirulaguntzak ematea bezalakoak. Edozein modutan, defizit hauei aurre ez egiteko agertzen duten aitzakia beti aurrekontuen falta izaten da.

Ikas komunitate kide gisa, osasun zerbitzuetako langile moduan eta aitorrezineko abentura militarrek prestatzeko errekurtsio ez xahutzeko beharraz kontzientziaturiko pertsonen moduan, edo gauza biak batera, gure

gizartearen zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko bidea zein den agintari politikoei adierazi nahi diegu: **ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETU: GASTU MILITARRIK EZ.**

2010. urterako aurreikusitako aurrekontu militarrek Estatuak gastatzen duen diru guztiaren %10 eramaten du. Horregatik, zera azpimarratu nahi dugu:

- Estatuko gastu militarra 2010. urterako 18.000 milioi eurokoa da.
- EAEk gastu militarrentzako 1.500 milioi euro ipintzen ditu, hau da EAEko pertsona bakoitzak urtero 725 euro jartzen ditu gastu militarrentzako.

- EAEk urtero 600 euroko balorea duen material militarra saltzen du. Guztira 75 enpresa dira EAEn – Bizkaian 32, Gipuzkoan 24 eta Araban 19- 3.000 lanpostu sortzen dituztenak, armen diseinua eta fabrikazioan aritzen direlarik.

- Leopard tanke batek (10 milioi euro balio duena) ondo hornitutako bi eskola eraikitzeke beste balio du eta hiruk ospitale bat beste balio dute.

- Tomahawck misil bik (2'5 milioi euro) eskola bat beste balio du eta 14 misilek ospitale bat.

- Eurofighter kazabonbardero batek (25 milioi euro) 5 eskola eta 2 ospitale eraikitzeke beste balio du.

- Porta hegazkin batek (2.500 milioi euro) 500 eskola eta 50 ospitale.

Gure hezkuntza zentroetan lantzen ditugun Bake Hezkuntzako baloreetan sinesten dugun pertsonen gisa, aipatutako gastuak eta politika militaristak etikoki zalantzarriak direlakoan gaude, gizartearen beharrezkoen bat ere ez dutela betetzen eta baliabide-xahutzea suposatzen dute, krisialdi ekonomikoa dela eta inoiz baino gehiago beharrezkoak direnean. Ospitale gehiago behar ditugu, langabezia, lan prekarioan edota bazterketa sozialen prozesuetan dauden familien oinarritzko beharrezkoak asetzeko gizarte laguntza gehiago beharrezkoa da, eta jakina, irakaskuntza publikoan inbertsio handiagoa.



EEEEILASSTEEEILASSTEEEILASSTEEEILASSTEEEILASSTEEEILASSTEEEILASSTEEEILASSTEE

BARAKALDOKO LA INMACULADA IKASTETXEA

Inmaculada M.S.J.O. ikastetxeak 1956-1957. ikasturtean abian jartzen du bere ibilbidea Barakaldon. Hasiera batean Barakaldoko herrigunean kokatutako etxebizitza bateko geletan finkatu ziren gerora ikastetxe handi baten oinarriak izango zirenak.

Barakaldo, Bizkaia osoaren antzera eta Nerbioi ibaiaren ezkerrekoa bereziki, arineketan hazten hasiak ziren. Hazkunde horren ondorioz, jaiotzez edota adopzioz Barakaldoko seme-alaba ziren hainbat eta hainbat haurren hezkuntzari erantzuna eman behar zitzaion. Gorantza zihon industria siderurgikoaren eta haren babesean sortutako zerbitzuen inguruan beraien bizitzak berrantolatzeke asmoz Estatuko lurralde desberdinetatik Barakaldoko elizpera hurbiltzen zirenen seme-alaben hezkuntzari arreta eskaini behar zitzaion.

Hastapenetako pisu txiki hartatik San Jose Parrokia-Etxeko lokaletara pasa ziren eta handik egun Ikastetxeko eraikina dagoen Barakaldoko herrigunera igaro ziren 1963. urtean.

1.500 ikasle izatera iritsi zen, horien artean, egun Erkidegoan erantzukizun handiko postuak betetzen dituztenak.

Erraza da bere ibilbidea irudikatzea. Garai eta testuinguru haietan, beste Ikastetxe Pribatu askotan bezalaxe, zeregin sindikala garatzen hasi ziren, zailtasunez beterik izan bazen ere.

1977. urtean sektore Pribatuko irakasle talde batek STEE-EILAS Sindikatua sortu zuen. Bilerak eta batzar ugari ostean hiru lankide bertan afiliatu ginen. Batzarretan parte hartzen genuen eta gero Ikastetxean han esandakoaz informazio berria eta baliagarria ematen genien gainerako lankideei jakinaren gain egon zitezela. Pixkanaka-pixkanaka beste batzuk afiliatzen hasi ziren, baina guztiok dakigun bezala, hau ez da inoiz erraza izan eta garai haietan are gutxiago. Motelago mugitzen ziren gauzak eta 1986. urtera arte ez ziren egin lehen hauteskunde sindikalak Ikastetxean. Alde batetik, STEE-EILAS Sindikatua hautagai eta bestetik, Ikastetxeko Zuzendaritzak antolatutako hautagai zerrenda independentea. STEE-EILASek, lan neketsu bat garatu ostean, Ikastetxeari zegozkion hiru ordezkarietatik bat lortu zuen eta Zuzendaritzarekin aldizkako bilera gauzatzen hasi ziren. Lan andana egin ondoren, Ikastetxearen kudeaketa

bestelakoa izaten hasteko lehen urratsak lortu ziren.

Lau urteren ondoren, hautagaitza aurkeztu genuen berriro eta orduan, geurea izan zen bakarra, ordurako bai Zuzendaritza eta baita lankideak ere ohartuak baitzeuden ordezkari izateko guztien alde, Zentroaren alde eta ez norberaren interesen alde lan egiteko prest egon behar zela. Informatua egon behar da eta horretarako babesa eta sostengua eskainiko dizun Erakunde bat behar izaten da, eta horixe zen geure Sindikatua. Hautagaitza bakarra egon arren hauteskundeak aurrera eraman ziren eta nahikoa bozka lortu ziren. Honek animuak piztu zituen.

Ondorengoko legealdietan ere STEE-EILAS baino ez zen aurkeztu. Halere, geroz eta boto kopuru gehiago eskuratzen genituen eta honek garatutako lana ildo zuzenik zihoala adierazten zigun.

Beranduago bost ordezkari osatutako Batzarra izatera iritsi ginen. Lankide guztiak informatzeko xedea, bidezko interesen alde egitea, taldearen onurarako eta banakotasun eta "bulegokeriaren" aurka aritzeak indar handia eskatzen badu ere horretan saiatu izan gara. Hobetzea posible bada ere eta askotan zeregin ugari egiteke geratzen badira ere, Ikastetxeko langileen eskubideak babestea eta Zuzendaritzak begirunea izan diezagun eta kontutan izan gaitzan lortu dugu; Ikastetxearen etorkizunean Batzarraren beharra garrantzitsua dela ikustarazi dugu, ikasleria zein langileria begirunez tratatzen den lekua dela, hau baita, azken finean, bertako guztion interesgune nagusia.

2007ko azken hauteskundeetan CC.OOK bere hautagaitza aurkeztu zuen. Partaidetza jendetsua izan zela adierazteak harrotzen gaitu, langileriaren %99ak boz eman zuen. Batzarra osatzen duten bost ordezkarietatik lau lortu genituen. Urte hauetan guztietan STEE-EILASek egindako lanari emandako babes eta isla gisa hartu ditugu emaitzak.

Egunez egun, geroz eta zailagoak dira gauzak eta geroz eta gehiago kostatzen da, belaunaldi berriei sindikalgintzan jarduteko ilusio berriak helaraztea. Datorren urtean izango diren hauteskunde sindikaletarako gutxienez bi langile gazte aurkezteko litzateke hurbileneko helburuetako bat, honek guztiak aurrera jarraitzeko asmoari eutsiko dioten belaunaldi berriak aurkeztuz.

2010 ARRAZOI MARTXAN JARRAITZEKO

Emakumeon Mundu Martxa ekintza feministen nazioarteko mugimendua da.

Pobrezia eta emakumeen kontrako indarkeria sortzen dituzten arrazoiak ezabatzeko ekimenetan diharduten emakume talde eta erakundeak biltzen ditu mugimendu honek.

2000. urtean hasi zuen bere ibilbidea eta urte beteko ekimenen ondoren, NBEk New York hirian duen bulegoetan martxaren aldarrikapenak babesten zituzten 5 milioi sinadura ipini ziren mahai gainean. 2005ean Brasildik abiatu eta mundu osoa zeharkatu ondoren, Burkina Fason eman zitzaion amaiera, urriaren 17an, Pobreziaren Erauzketarako Nazioarteko Egunean hain zuzen ere.

5 urte beranduago, emakumeok, oraindik ere milaka arrazoi ditugu ekimen eta mugimenduetan jarduteko eta kalera ateratzeko, besteak beste: prekaritatea, pobrezia, indarkeria, ikusezintasuna, diskriminazioa,.... Horrela, 2010. urte honetan emakumeok berriz ere elkartu eta martxan jarri gara bidezkoa den eta bakean bizi den jendartea lortzeko. Ezinbestekoa dugu berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna oinarri dituen mundu bat izatea eta horretarako derrigorrezkoa da ondorengo eskubideak lortzea:

1. Emakumeak izateagatik gure kontrako biolentzia ez jasotzeko.
2. Jendarteko edozein arlo eta jardueretan aktiboki parte hartzeko eta aintzat hartuak izateko.
3. Lana baldintza duinetan burutzeko.
4. Zainduak izateko eta emakumea izateagatik etxeke eta zaintza lanak egitera behartuak ez izateko.

DISCIPLINA Y AUTORIDAD

Tiene que haber disciplina porque sin ella no se puede estudiar y no se puede convivir. No es un capricho de la autoridad. No es un antojo del profesorado. /.../ Todos y todas tienen que saber que, en la escuela, son sujetos de derechos. Pero también de obligaciones. Si lo que se pretende es aprender, es necesario que haya orden, horario, silencio y condiciones, para que quien quiera hacerlo lo pueda conseguir sin trabas.

El problema está en cómo se consigue llegar a esa convicción y cómo se lleva a la práctica. Ahí está el meollo de la cuestión. No puede conseguirse a palos. No sólo porque esa estrategia a la larga no sea efectiva, sino porque es contradictoria con la esencia de la educación, que descansa en la libertad. Esa estrategia que se basa en vigilancia, en

5. Famili unitatepean egon barik laguntza sozialak eta ekonomikoak jasotzeko.
6. Gure bizitzako etapa bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartuz gure bidea/bizitza duintasunez egiteko.
7. Elikagaiak nola ekoizten ditugun erabakitzeko eta hauen ekoizpena duintasunez gauzatzeko eta elikagaiak izateko.
8. Gure identitate sexuala edozein izanda ere sexualitatea askatasunez bizitzeko.
9. Gure gorputzaren inguruan askatasunez erabakitzeko eta aukeratzeko.

Horrengatik guztiagatik, martxoaren 8an Iruñan hasi zen Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxan parte hartu genuen. Martxa martxoaren 13an Iruñan bertan bukatu zen ekitaldi nagusi batekin.

Martxari buruzko informazio guztia ezagutu nahi izanez gero ondoko bloga kontsulta dezakezu:

<http://2010emakumeenmundumartxa.blogspot.com/>



EUSKAL HERRIKO MUNDU MARTXA

amenazas y en castigos mantiene sin respuesta la cuestión esencial: cuando no tengan esa vigilancia, esas amenazas y esos castigos, ¿se portarán bien porque han aprendido a respetarse, a reconocer la dignidad del otro y a garantizar el ejercicio de sus derechos?

El camino, a mi juicio, está en la participación, en la argumentación, en la reflexión, en la reconvencción y en el ejemplo. Hace falta paciencia, claro. Si ya estuviesen educados, si ya hubiesen aprendido respeto y consideración, si fuesen cumplidores fieles de sus obligaciones, ya no necesitarían de los educadores y educadoras ni de la escuela.

Miguel Ángel Santos Guerra,
Cuadernos de Pedagogía, 396 zenbakitik hartua

JON MIKEL BASABEREN OROIMENEAN



Duela hilabete batzuk, gure artetik joan zitzagun Jon Mikel. Konturatu ahala egoera honek atzera bueltarik ez duela, egunean egunean bere falta mingarriagoa egiten da. Falta hori nekez leundu dezakegu bere oroitzapenarekin, bizi zen bitartean, agian, eman ez genion errekonozimenduarekin.

Jon Mikel, Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxeko irakaslea izan zen 30 urtez. Horrez gain, lan sindikala ere egin zuen, delegatu bezala lehenengo eta STEE-EILASeko Idazkaritzako kide bezala geroago. Bi arloetan bere irmotasuna, zintzotasuna eta dedikazioa nabarmenak izan ziren eta berarekin partekatzen zortea izan genuen. Berarengandik ikasi genuen ezinezkoa lortzeko borrokatzea merezi duela, bizi eta ametsetara hurbiltzen gaituen lorpen txikiez osatua bait dago; helburua bidea egitea dela, ez gabela garaituak sentituko saiatuak izan bagara.

Berak animatzen gintuen kandidaturak eta proposamenak aurkeztera. Berak lideratzen zituen batzarrak eta gure lan arloko zalantzak argitu. Berak borrokatzen zuen, nekazekin, gure aldarrikapenen alde, sindikatuko edo ez, aldekoa edo ez, ezaguna edo ez. Hainbat "lanetan" aritu zen: idazkari, mezulari, banatzaile; itzultzaile, taxista, aholkulari, konfidente.

Jon Mikel bere gizatasunagaitik egiten zen maitakor: zuzena eta zintzoa bere iritzia ematean, desadostasunak behar zen tokian argitzearen aldekoa zen, harreman pertsonalak kutsatu barik. Hurbilekoa zen baina zurikerietatik ihez egiten zuen. Saiatuen adorea zuen, ausarten umiltasuna, umeez daukaten bihotz handia, baikortasun izugarria; eta batzuetan hasiberrien inozentzia.

Berarekin izandako azkenengoetako elkarriketa batean komentatu zigun berari loteria jada tokatu zitzaiola, bere burua gaixotasunaren azkenengo erasotik garaile uste bait zuen. Bizitza zer den: loteria zozketaren egun berean bere hileta ospatu behar.

Goian bego, Jon Mikel. Munduak gizon on bat galdu du.

(Durangoko Jesuitak ikastetxeetako STEE-EILASeko kideak)

JUBILAZIOA UKITU ERE EZ!

Gure klaustro eta irakasle geletako solasaldietan lehendik ere gai-izarretako bat zen erretiroaren kontuak are eta oihartzun handiagoa bereganatu du alde guztietan. Ez da gutxiagorako! Orain 70 urte arte atzeratu nahi dute derrigorrezko erretiroa eta pentsioen inguruko beste zenbait kontu ere ukitu nahi dute, tartean borondatezko erretiroa.

Baina zer uste dute enpresari eta dirudun esklabista hipokrita hauek! Ez al dute nahikoa zerga ez ordaintzearekin, doako kaleratzearekin, enpresak itxi eta lasai gelditzearekin? Zein izango da hurrengo eskaera? Langileak urkatze eskubidea? Lehen gaueko eskubidea? Ase ezinak dira eta oso harrotuta daude.

Eskerrak ezkerrekoak diren Madrilen eta Gasteizen dauden gobernuak! Zapaterok "BAKARRIK" 67 urte arte atzeratuko du! Beti langileen alde! Ederki ari dira kanbalatzea antolatzen: Toledoko paktoen mahaia omen da horretaz hitz egiteko tokia... Urrutitxo, agian!

Zalantza eta susmo txar baino ez dator txiringito horietatik, oso erraza baita salerosketak burutzea inplikatuaren kontrolik gabe. Orain gutxi gertatu izan balitz halako zerbait, dagoeneko greba orokorraren deialdia eginga litzateke.

Euskal Herriko gehiengo sindikalak argi adierazi du neurri horien aurkako jarrera tinkoa. STEE-EILASek bat egiten du horrekin, eta ondoko hauek adierazi nahi ditu:

- Ez dugu onartzen erretiro adina luzatzea.
- *55 urterekin borondatezko erretiro aurreratua hartzeko aukera exijitzen dugu.*
- Hauek guztiak gure negoziatzaileentzat marko propioan egitea exijitzen dugu.
- *Behar den dirua biltzeko, fiskalitatea aldatzea exijitzen dugu eta, bereziki, iruzur fiskalari aurre egitea.*

Martxoaren 27an egingo diren deiladietan parte hartu aldarrikapen horien alde

Lan Osasuna

Mutuak eta gaixotasun bajak

Zer dira mutuak?

- Enpresarien elkarrekin, beraz, ugazabakoak dira..
- Mutuen heburuak:
 - Bere menpean dagoen langilerien lan-gaixotasun eta lan-istripuen gertakizunen kudeaketan laguntza ematea
 - Arruntak diren gertakizunen ezintasun-iragankorren kudeaketan lagunaza eman (bakar bakarrik, enpresak mutua kontratatu badu horien kudeaketa eramateko)

Gaixotasun arruntak

- Soilik Osakidetzako medikuak eman diezazuke alta eta baja.
- Soilik Osakidetzako medikuak agin diezazuke zuk jarraitzeko tratamendu medikoa.

Mutuak:

- Osasun-azterketak egin ditzakete bajaren 16. egunetik aurrera. Arrazoi bereko bajak gehitzen dira.
- Zu aztertzea ezin duzu ukatu.

LAN-ISTRIPUAK ETA LAN-GAIKOTASUNAK

Zure enpresak kontratatu duen mutuak:

- Alta eta baja ematen du.
- Laguntza ekonomikoak abonatzen ditu.
- Osasun eta errehabilitaziorako zerbitzuak eskaintzen ditu.

Arazoak:

- Ez dituzte ondoezak lan-sorburutzat hartzen.
- Bajen iraupena murrizteko interesa dute.
- Ondo sendatu barik, alta ematen dute.

Egon erne!!

- Lanagatik sortutako ondoezak ez biezakizute sailka gaixotasun arruntak bezala.
- Sendatu barik ez bekizkizu lanera bidali.
- Zure baimena ez badiezu ematen, osasun-azterketak ezin dira zure etxean egin.

- Azterketa horien oinarriak zerbitzu publikoko medikuek jasotako datuak izango dira.
- Tratamendu mediko bat proposa dezakete, jarraitzeko behartu gabe.
- Zuri alta ematea proposa diezaioke zure Gizarte Segurantzako medikuari.
- Ezin dira zure etxean sartu. Etxebizitza ukiezina da.
- Zure gaixotasunak oztopatzen badizu osasun-azterketara joateko, medikuaren ziurtagiri bat aurkeztu eta ez joan.

Zitazio bat heltzen zaianean, zer egin?:

- Jarrera sotila, baina lagundu gabe, baja eman digun medikuaren esku utziz.
- Ez onartu bajaren iraupenari edo gaixotasunari buruzko komentariarik.
- Informeak, analisiak edota erradiografiak eskatzen badizkizute, emateko uzkurto ahal duzu. Mutuak eska diezazkiola zure Osakidetzako medikuari.
- Joan-etorriko gastuak badituzu, kontu-agiriak aurkeztu

Argibide gehigorako
www.stee-eilas.org. Lan Osasuna



